
39. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA
AZAROAK 20-28 NOVIEMBRE
titirijai
2021

## Aurkezpena

Badator Titirijai, Tolosako udazkeneroko hitzordua. Iazkoa urte bitxia izan zen arren, lortu genuen jaialdia ospatzea, eta aurten normaltasunera itzuliko da berriz. Gainera, inoiz baino gogo handiagoz hasiko gara datorren urtean beteko den 40. urteurrena prestatzen. Izan ere, irrikaz gaude kalea eta antzokiak beteta ikusteko, gainezka, Tolosan, Gipuzkoan zein Euskal Herrian tradizio bilakatu diren txotxongiloak ikustera joandako haur nahiz helduekin.

Aurtengo jaialdiak, inoiz baino gehiago, agerian jarriko du Euskal Herria Plazako TOPIC eraikinaren barrunbeetan egiten den lan ikusezina: ehunka bideo ikusten ditugu; jaialdietara bidaiatzen dugu zuei eskainiko dizkizuegun ikuskizunak aukeratzeko; sorkuntzarako egonaldiak antolatzen ditugu gero haien fruituak goza ditzazuen antzoki eta kaleetan; erakusketak ekoitzi, diseinatu eta lantzen ditugu, zuek liluratzeko aurreko mendeetako haur zein helduen gozamen izan ziren altxorrekin, edo bestelako bitxikeriekin, esaterako txotxongiloak agertzen dituzten disko-azalekin; kaleko ikuskizunak antolatzen ditugu herritarrak parean topa ditzan larunbateroko paseoen alaigarri; sona handiko profesionalak eta adituak biltzen ditugu eztabaidarako jardunaldietan, gogoeta egin dezaten profesionalki Europan dugun egoerari eta titiriteroen prestakuntzari buruz; prestakuntza jardunaldiak antolatzen ditugu profesionalentzat; omenaldiak ere bai… DENENTZAKO jardueraz jositako Titirijai bat: haur zein heldu, profesional nahiz zale, badaude denoi zuzendutako jarduerak, zuk zeuk ere goza dezazun. Zain gauzkazu!!!

Idoya Otegui
Zuzendaria

## Presentación

*Se acerca Titirijai una cita anual del otoño tolosarra que este año vuelve a la normalidad después de un año un tanto extraño, pero que a pesar de la Pandemia logramos celebrarlo. Un Titirijai que se prepara para festejar en el 2022 su 40 cumpleaños, con más ganas que nunca, deseando ver los teatros y las calles llenos de peques y grandes que acuden al encuentro de los títeres que son ya tradición en nuestra querida Tolosa, en nuestra querida Gipuzkoa y en nuestra querida Euskal Herria.*

*El Festival presenta más que nunca el fruto del trabajo muchas veces invisible de lo que se hace tras los muros del edificio de la Plaza Euskal Herria, 1, del TOPIC: visionado de cientos de videos, viajes a festivales para seleccionar los espectáculos que vais a ver; Residencias de creación cuyos frutos luego podemos disfrutar en los teatros y calles; Exposiciones que se producen, diseñan, trabajan a lo largo del tiempo para que podamos maravillarnos de los tesoros que disfrutaron niños y mayores de siglos pasados u otras tan curiosas como portadas de discos dedicadas a las marionetas; Espectáculos de calle que salen al encuentro del ciudadano de a pie y le sorprenden en su deambular sabatino; Jornadas de debate con especialistas y expertos de reconocido prestigio para reflexionar sobre dónde estamos en Europa tanto en lo profesional como en la formación del marionetista; Jornadas de Formación para los profesionales; Homenajes… En fin un Titirijai cargado de actividades para TODOS y TODAS, niños y niñas, adultos, profesionales y amantes de la marioneta, hay actividades para que puedan, para que podamos disfrutar todas y todos, si, si tú también. Os esperamos!!!*

*Idoya Otegui*
*Directora*



# RAUXA TEATRO

## Katalunia_Cataluña

## "Teatro de papel"

Eguna_Dia: **Azaroak 20 Noviembre**

Ordua_Hora: **12:00 eta_y 17:00**

Lekua_Lugar: **Premontajes Aretoa**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik Gabe_ Sin palabras**

Teknika_Técnica: **Haizezko txotxongiloak_Marionetas de Viento**

Iraupena_Duración: **20'**



Ikuskizun hau bakarkako lan bat da, eguneroko bizitzan poesia aurkitzeko eta, horrela, bizitza apur bat magikoago egiteko gaitasuna piztu nahi diona jendeari. Helburutzat dauka sinpletasunaren indarra aldarrikatzea, gauza errazen konplexutasuna apreziatzea eta ahaztutakoen edertasuna deskubritzea.

Eguneroko bizitzako elementu ohikoenekin sortutako unibertso fantastiko batean murgilduko gaitu. Objektuen berrerabilpenaz eta eraldaketaz pentsaraziko digu, eta baita ere objektu horien balio erlatiboaz, zoriontsu izateko benetan zer behar dugun zalantzan jarriz…

*Este espectáculo solo pretende despertar en la gente la capacidad de encontrar poesía en la vida diaria y de esta forma hacerla un poco más mágica. Busca reivindicar la fuerza de la sencillez, aprender a apreciar la complejidad de lo más simple y descubrir la belleza de aquellas cosas olvidadas.*

*Nos introduce en un universo fantástico, creado a partir de elementos sencillos de la vida cotidiana. Pretende hacernos pensar en la reutilización y transformación de los objetos así como también reflexionar sobre el valor relativo de los mismos, poniendo en cuestión lo que verdaderamente necesitamos para ser felices…*



# XIP XAP

## Katalunia_Cataluña

## "Hamelin"

Eguna_Dia: **Azaroak 20 Noviembre**

Ordua_Hora: **18:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak eta maskarak Marionetas de Mesa y Máscaras**

Iraupena_Duración: **50'**



Zenbait klasikok badute denboraren joanari aurre egin eta guztiz garaikideak diren irakurketak eskaintzeko gaitasuna. Horietako bat da HAMELIN, izen bereko ipuin klasikoan oinarritutako ikuskizuna, eta gure ustez kontatu beharrekoa den funts bat bizirik mantentzen duena. Hamelinek zeurea izan zitekeen hiri baten zorigaizto misteriotsua kontatzen baitu. Hiri horretan, hiritar guztiak elkarren ondoan bizi dira, euren poztasun eta eztabaiden erdian, baina bizikidetza dramatikoki asaldatuko da gertakizun baten ondorioz. Hiria arratoi plaga batek inbadituko du. Inork ez daki nondik agertu diren baina, akaso ez dira inondik etorri? Agian beti egon dira bertan?

*Algunos clásicos tienen el poder de sobrevivir al paso del tiempo y continuar ofreciendo lecturas que nos resultan completamente contemporáneas, como Hamelin, un espectáculo basado en el cuento clásico que mantiene viva una esencia imprescindible de contar. Hamelin explica la misteriosa desgracia de una ciudad, que bien podría ser la tuya, donde conviven todos los vecinos y vecinas, con sus alegrías y sus discordias, pero un hecho hará que su convivencia se vea alterada de forma dramática. La población está invadida por una plaga de ratas, pero nadie sabe de dónde vienen, ¿o quizás es que no han venido de ninguna parte y siempre han estado allí?*

# EL RETABLO

## Madril_Madrid

## “Kalek, historia de un caballo”

Eguna_Día: **Azaroa 21 Noviembre**

Ordua_Hora: **12:00 eta_y 17:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Premontajes Aretoa**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **7 urtetik aurrera**
**Apartir de 7 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak eta objektuak**
**Marionetas de Mesa y Objetos**

Iraupena_Duración: **45’**



Kalek moxal basati bat da, amarekin batera libre bizi dena. Egun batean gizonek harrapatu eta otzandu egingo dute, eta jabe desberdinen menpe lan egin beharko du, zirko batean amaitzen duen arte, itzulipurdiak eta bestelako jauziak eginez. Bere ukuiluan gatibu, Kalekek gauero amesten du berriz ere libre dela, haizea bezala.

Ikuskizun honek poesia eta umorea uztartzen ditu, txotxongiloak, objektuen antzerkia eta musika protagonista bilakatuz. Pablo Vergneren dramaturgia orijinala samurra bezain sakona da askatasunari buruzko ipuin honetan.

*Kalek es un potrillo salvaje que crece y galopa libremente junto a su madre. Un día es atrapado y domado por los hombres y comenzará a servir a diversos dueños hasta terminar en un circo haciendo cabriolas y otras pruebas circenses. Todas las noches, encerrado en su establo, Kalek sueña con volver a ser libre como el viento.*

*El espectáculo combina lo poético y lo cómico recayendo el protagonismo sobre los títeres, el teatro de objetos y la música. La dramaturgia original de Pablo Vergne desborda ternura y profundidad en este bello cuento sobre la libertad.*



# Y MEDIO TEATRO

## Andaluzia_Andalucia

## “Eco”

Eguna_Día: **Azaroak 21 Noviembre**

Ordua_Hora: **18:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik Gabe_Sin palabras**

Teknika_Técnica: **Pailazoa, mahaiko txotxongiloak, objektuak**
**Payasos, Marionetas de Mesa, Objetos**

Iraupena_Duración: **55’**



Sarritan, aske izatea ez da loturak haustea, baizik eta lotura horiekin bizitzea. Ahalegin horretan, bizitza errepikatu egiten da, buru-bihotzetako hormetan talka egiten duen oihartzun bat bailitzan. Eta amesgaizto hori maiz errepikatzen da eszenatokian harrapatuta dauden bi komiko hauen lozorroan.

Ymedioteatro konpainiak bere proposamen pertsonal eta zirraragarriena aurkezten digu. Jolasa da sorkuntzaren jatorria, lotsarik eta beldurrik gabe, ahalegin betean eta denak emanda: txotxongiloak, objektuak, eszenografia, argiztapena, emozioak, musika eta mugimendua. Ikusizko metaforen dantza, bizitzara lotzen gaituen poesiaz mintzatzen den ikuskizun komiko baten baitan.

*Ser libre, muchas veces, no consiste en romper las ataduras sino en convivir con ellas. Mientras lo intentamos, la vida se repite en un eco que resuena en las paredes de cabezas y corazones. Esta es la pesadilla recurrente de dos cómicos atrapados en el escenario.*

*Ymedioteatro presenta su propuesta más personal y vibrante. El juego es el origen de la creación, sin pudor, sin miedo, a por todas y con todo: los títeres, los objetos, la escenografía, la iluminación, las emociones, la música y el movimiento. Un baile de metáforas visuales para un espectáculo cómico que habla de la poesía que nos ata a la vida.*

# PARTÍCULAS ELEMENTARES

Portugal

## "Nido"

Eguna_Dia: **Azaroa 27 eta_y 28 Noviembre**

Ordua_Hora: **12:00 eta_y 17:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Premontajes Aretoa**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitz gabe_Sin texto**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak_Marionetas de Mesa**

Iraupena_Duración: **40'**



"El Niño" ikuskizuna Miguel Torga idazle portugesaren olerki soilenetako batean inspiratuta dago, zeinetan oso lerro gutxitan islatzen baitu ongi gordetako sekretu batek nola indartu dezakeen benetako adiskidetasuna.

Argumentu minimalista duen kontakizun hau zoritik abiatzen da. Apaingarri gutxiko eszenatoki horretan mugituko dira protagonista bakarra, bigarren mailako hiru elementu eta obra hasieratik amaierara osatuko duen soinu-banda.

"El Niño" proiektu berezi-berezia da, haurrei zein helduei irudimena hegaldatzeko irrika pizten diena, eta bizitzako gauza sinpleenak baloratzera bultzatuko gaituena, ulertzeko hain errazak direnak eta beste ororen gainetik zaindu eta gorde behar direnak.

*El Niño se inspira en uno de los poemas más sencillos del escritor portugués Miguel Torga, que en unas pocas líneas desvela cómo un secreto bien guardado puede fortalecer una amistad verdadera.*

*Con un argumento minimalista, la narrativa se desenvuelve desde el azar. En un escenario con pocos artificios, en el que se mueven un único protagonista, tres elementos secundarios y una banda sonora que complementa toda la pieza.*

*El Niño es un proyecto notable que deja tanto al público infantil como al adulto con una inmensa voluntad de dejar volar la imaginación. Es una invitación a valorar las cosas sencillas de la vida, esas que no cuesta entender y han de conservarse como las más importantes.*



# TITIRITEROS DE BINÉFAR

Aragon

## "Maricastaña"

Eguna_Dia: **Azaroak 27 Noviembre**

Ordua_Hora: **17:00**

Lekua_Lugar: **Leidor Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **2 urtetik aurrera_A partir de 2 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Eskularrua, haria, mahaia…_Guante, hilo, mesa…**

Iraupena_Duración: **55'**



Maricastaña eta Bruno ipuinen sorleku ezkututik datoz. Begietara begiratzen diete ikusleei, eta pertsonaiak ingurura hurbiltzen zaizkie, esku-txokotik jatera datozen txoriak bailiran. Musika jotzen dute, alegiak errezitatzen, astakeriak asmatzen, eta politxinelak dantzarazten dituzte erretaulan.

Testuak: Ramón Gómez de la Serna, Juan Ramón Jiménez, Miguel Hernández, María Elena Walsh, Antonio Robles.

Txotxongilo ikuskizun onenaren saria FETEN 2014 jaialdian. Obra onenaren ikusleen saria Los Yébeneseko I. Txotxongilo Jaialdian.

*Maricastaña y Bruno llegan de ese lugar arcano en el que nacen los cuentos. Miran al público a los ojos y acuden personajes como bandadas de pájaros a comer de sus manos. Tañan músicas, recitan fábulas, inventan disparates y hacen danzar a los polichinelas en el retablo.*

*Textos de: Ramón Gómez de la Serna, Juan Ramón Jiménez, Miguel Hernández, María Elena Walsh, Antonio Robles.*

*Premio al Mejor espectáculo de Títeres FETEN 2014. Premio del Público a la Mejor obra del I Festival de Títeres de Los Yébenes.*

# ANTAMA-PANTAHOU

## Grecia

## "The Strings of Music"

Eguna_Dia: **Azaroak 27 Noviembre**

Ordua_Hora: **18:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitz gabe_Sin texto**

Teknika_Técnica: **Haria, buruak, mahaiko txotxongiloak Hilo, Marote, Marioneta de Mesa…**

Iraupena_Duración: **50'**



Aurreikusi ezinezko kontzertu bat, munduko txoko desberdinetako musikak biltzen dituena.

Hitzik gabeko komedia bat, elkarri lotzen zaizkion istorioz osatua, non 11 txotxongilo musikari eta bi txotxongilo aktore agertzen baitira, elkarren arteko txotxongilo eta pantomima jolas batean murgildurik.

Perkusio-jole tradizional bat sabel-dantza egiten duen ekialdeko dantzari batekin, akordeoilari bat abeslari ijito batekin, Asia Txikiko flautista tradizional bat 3 biolin-jole klasikorekin, gitarra-jole bat "The Strings" rock taldeko perkusio-jole batekin, biolin-jole txiki bat eta Country abeslari bat. Guztiak agertuko dira jendaurrean euren bizitzako uneak kontatzeko.

Txotxongilo antzerki eta pantomimaz osatutako ikuskizuna, adin guztietako jendearentzat entretenigarri dena hiru elementu nagusiri esker: koreografia, umorea eta erritmoa.

Este es un concierto impredecible con músicas de diferentes partes del mundo. Una comedia sin palabras que consta de historias que se entrelazan entre sí con 11 marionetas músicos y dos marionetas más que representan a los actores en un juego de títeres y pantomima entre ellos.

Un percusionista tradicional con una bailarina de danza del vientre oriental, un acordeonista con una cantante gitana, un flautista tradicional del Asia Menor con 3 violinistas clásicos, un guitarrista con un percusionista de la banda rock "The Strings", un pequeño violinista y un cantante country. Todos ellos se presentan ante el público para contar momentos de su historia.

Un espectáculo de teatro de marionetas y pantomima donde la coreografía, el humor y el ritmo son elementos que permiten que este espectáculo sea igualmente ameno para todas las edades.

# LUNAS

## Madril_Madrid

## "Azul como un trazo de mar"

Eguna_Dia: **Azaroak 28 Noviembre**

Ordua_Hora: **18:30**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **5 urtetik aurrera_A partir de 5 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Paperezko antzerkia, mahaia, objektuak Teatro de papel, mesa, objetos**

Iraupena_Duración: **45'**



"Azul como un trazo de mar" (Yagui: Cuentos Coreanos) 5 urtetik gorako ikusleentzat pentsatutako txotxongilo antzerkia da. Lau interprete-demiurgok mikrokosmos bat sortzen dute espazio huts batean, anitz bezain harmonikoak diren elementuak agertuz eta ordenatuz. Hitzak, poesiak, figurek, argiak eta zuzeneko soinuak unibertso eszeniko bat osatzen dute ipuin zoragarri baten kontakizunaren inguruan.

Ikuskizun hau Veranos de la Villa Jaialdian (Conde Duque Kultur Zentroa) estreinatu da, eta biran ibili da Donostiako Kultura Korearraren Jaialdian (Tabakalera, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa).

Azul como un trazo de mar (Yagui: Cuentos Coreanos) es un espectáculo de teatro de títeres para público de 5 años en adelante. Cuatro intérpretes-demiurgos crean, en un espacio vacío, un microcosmos a través de la aparición y ordenación de elementos tan diversos como armónicos. Mediante la palabra narrada y la poética, figuras, luz y sonido en directo; se conforma un universo escénico en torno al relato de un hermoso cuento.

Este espectáculo ha sido estrenado en el Festival Veranos de la Villa (Centro Cultural Conde Duque) y ha hecho gira en el Festival Cultural Coreano de Donostia (Centro de Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera).




# 4 CREACIONES 4 CONTINENTES

## Azaroa_Noviembre 22

“4 creaciones 4 continentes” proiektua UNIMA Internacional elkartearen ekimen bat da, 2017an sortu zena bere 90. urteurrenaren karietara. Ospakizunaren harira, UNIMAren 2016-2021 arteko Zuzendaritza Batzordeak proiektu bat abiarazi zuen gazteria inplikatuz, eta ekimen hark barne hartu zituen prestakuntza, sorkuntza eta trukea, guztiak ere oinarrizko elementuak arte eszenikoen munduan. Hala, idazle gazteentzako mundu mailako idazketa sari bat antolatu zen Frantziako Kultura Ministerioaren babesarekin, eta Marcos Nicolaiewski brasildar gazteak irabazi zuen Aduanas obrarekin.

Guztira 4 sorkuntza egin ziren, bat kontinente bakoitzeko (Afrika, Amerika, Asia eta Europa); sorkuntza haietan herrialde desberdinetako gazteak bildu ziren, Aduanas obraren bertsio bana sortzeko bereziki aukeratutako eszena-zuzendari baten esanetara, eta sorkuntza-egonaldiak egin zituzten kontinente bakoitzeko herrialde desberdinetan. Proiektua amaitzeko, asmoa zen 4 sorkuntzak estreinatzea UNIMAk 2019an Balin egitekoa zuen Mundu mailako Kongresuan, baina jaialdi hura 2020an eta online egin behar izan zen pandemiaren ondorioz, eta ezin izan zen estreinaldi hura eskaini aurreikusi bezala. Azkenik, Europan eginiko sorkuntza aurten estreinatu da Charleville-Mézières hiriko FMTM jaialdian, eta Afrika eta Amerikako sorkuntzak Tolosako Titirijai jaialdian estreinatuko dira, non berriz eskainiko baitute Europakoa ere. Halaber, obraren egilea Tolosan izango dugu.

*El proyecto 4 creaciones 4 continentes, es un proyecto de UNIMA Internacional que surge en 2017 con el objetivo de celebrar los 90 años del nacimiento de la UNIMA. Para la ocasión la Junta Directiva de UNIMA de 2016-2021 decidió impulsar un proyecto que implicara a la juventud y que incluyera formación, creación e intercambio, elementos fundamentales en el mundo de las artes escénicas. Se convocó un premio de escritura para jóvenes autores a escala mundial, para el cual se contó con el patrocinio del Ministerio de Cultura francés siendo el ganador el joven brasileño Marcos Nicolaiewski con la obra Aduanas.*

*Se realizaron 4 creaciones en África, América, Asia y Europa en las que participaron jóvenes de distintos países que se reunieron bajo la dirección de un director de escena seleccionado a tal efecto para crear la versión de Aduanas y se llevaron a cabo residencias de creación en distintos países del continente en cuestión. El proyecto finalizaba con el estreno de las 4 creaciones en el Congreso Mundial de la UNIMA de 2019 en Balí, sin embargo debido a la Pandemia el Congreso se tuvo que celebrar on-line en 2020 sin que se pudiera llevar a cabo el estreno como estaba previsto. Finalmente este año 2021 la creación Europea se ha estrenado en el FMTM de Charleville Mézières y las creaciones Africana y Americana se estrenarán en el Titirijai de Tolosa donde podremos disfrutarlas junto con la Europea. Contaremos también con la presencia del autor de la obra.*

# AMÉRICA

## 4 creaciones, 4 continentes
## Bertsio amerikarra
## 4 Creaciones, 4 Continentes
## Versión americana
## "Customs"

Eguna_Dia: **Azaroak 22 Noviembre**
Ordua_Hora: **22:00**
Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**
Gomendatutako adina_Edad recomendada: **16 urtetik aurrera_A partir de 16 años**
Hizkuntza_Idioma: **Ingelesa_Inglés**
Teknika_Técnica: **Objektuak_Objetos**
Iraupena_Duración: **30'**



Zer esan nahi du atzerritar bati ongietorria emateak zure itsasertzean? Ordu erdiko obra honetan, aireportuko segurtasun kontrol batek argitara aterako ditu mundu osoko hainbat istorio. Maletetako eguneroko artikuluek bizia hartuko dute nondik nora bidaiatu duten azaltzeko. Eta istorio horiek kontatuz, Aduanas obrak sakonki islatuko du atzerritarrek estatuen mugetan jasaten duten sufrimendua, ontasuna aldarrikatuz haien arteko konexioak azaleratzean.

Aduanas obraren bertsio honetan parte hartzen dute Abigail Espínola (Mexiko), Carolina Morales (Txile), Jesse Orr (Kanada) eta Mark Blashford (Estatu Batuak) titiriteroek, Sarah Nolen (Estatu Batuak) zuzendariaren esanetara.

*¿Qué significa dar la bienvenida a un extranjero en tu costa? En esta obra de media hora, un control de seguridad aeroportuario permite sacar a la luz una serie de historias de todo el mundo. Los artículos de equipaje cotidianos cobran vida para reproducir sus viajes. Al contar estas historias, Aduanas ahonda en el sufrimiento de los extranjeros en las fronteras de los estados, y reivindica la bondad al descubrir sus conexiones.*

*En esta versión de Aduanas participan las marionetistas Abigail Espínola (México), Carolina Morales (Chile), Jesse Orr (Canadá), y Mark Blashford (Estados Unidos) dirigidos por Sarah Nolen (Estados Unidos).*

topic.

# EUROPA

## 4 creaciones, 4 continentes
## Bertsio europarra
## 4 Creaciones, 4 Continentes
## Versión europea
## "Customs"

Eguna_Dia: **Azaroak 22 Noviembre**
Ordua_Hora: **22:00**
Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**
Gomendatutako adina_Edad recomendada: **16 urtetik aurrera_A partir de 16 años**
Hizkuntza_Idioma: **Ingelesa, frantsesa, portugesa, gaelikoa, italiera_Inglés, francés, portugués, gaélico, italiano**
Teknika_Técnica: **Paperezko antzerkia, itzalak Teatro de papel, sombras**
Iraupena_Duración: **30'**



UNIMAren 90. urteurrenaren karietara, Marcos Nicolaiewsky brasildarrak Sortzaile gazteentzako UNIMA saria irabazi zuen "Customs" izeneko testuagatik. Mugei buruzko istorio bat da, gogoeta egiten duena gaur egun muga bat zeharkatzeak duen esanahiari buruz, izan muga geografikoa edo tenporala, irekia edo itxia…

"Les Hauts-de-France" eskualdeko Le Tas de Sable - Ches Panses Vertes espazio-konpainiak beretzat hartu zuen testu hori, istorioz kargatutako maletak are gehiago betetzeko asmoz. Hala, txotxongiloei eman zien hitzak totemizatzeko lana, elkarrengandik izugarri desberdinak diren pertsonaiak –Irlanda, Portugal, Belgika eta Frantziatik etorritako artistek baliatzen dituzten manipulazio-teknikak bezain desberdinak- haragiztatu zitzaten. Europako kantu eta hizkuntzaz betetako sorkuntza poetiko bat, mugetara erabateko iraultza daramana!

*Con ocasión de los 90 años de UNIMA, el brasileño Marcos Nicolaiewsky recibió el premio de la UNIMA a los jóvenes autores por su texto titulado `Customs". Una historia de fronteras que cuestiona lo que significa hoy en día atravesar una frontera, ya sea geográfica o temporal, abierta o cerrada…*

*El espacio-compañía Le Tas de Sable - Ches Panses Vertes, ubicado en "Les Hauts-de-France", se apoderó de este texto para ampliar las maletas llenas de historias, para confiar a las marionetas la tarea de totemizar la palabra encarnando personajes tan diferentes los unos de los otros como lo son las técnicas de manipulación utilizadas por las actrices llegadas de Irlanda, Portugal, Bélgica y Francia. Una creación poética sembrada de canciones y lenguas de Europa, que revoluciona las fronteras a las mil maravillas!*

topic.

# MANU MANSILLA

## Argentina

## "Coctel"

Eguna_Dia: **Azaroak 23 Noviembre**

Ordua_Hora: **22:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada:
**12 urtetik aurrera_A partir de 12**

Hizkuntza_Idioma: **Gaztelania_Castellano**

Teknika_Técnica: **hagaxkako eta mahaiko objektuen antzerkia_objetos, mesa, varilla**

Iraupena_Duración: **80'**



Coctel hainbat txotxongilo-teknikek osatzen dute: objektu-antzerkiak, maskorrarekin egindako txapelak, txotxongilo gorpuzdunak eta txotxongilolari bat agerian, ikusleen laguna dena eta aldi berean, aretoan bat gehiago besterik ez dena, txotxongiloek dutelako egi osoa.

Lau historio ikusteko aukera izango dugu: Elkarrizketak Luisekin, Papelin, Heriotza eta La Nely

*Coctel Lo componen diferentes técnicas de títeres, teatro de objetos, bocones con varilla, títeres corpóreos y un titiritero a la vista, uno amigo de su público, que es a la vez uno más en la sala porque los títeres tienen la verdad.*

*Disfrutaremos de cuatro historias: Conversaciones con Luis, Popelín, La muerte y La Nely.*



# ALAS NEGRAS

## Frantzia /Argentina
## Francia/Argentina

## "Déracinés"

Eguna_Dia: **Azaroak 24 Noviembre**

Ordua_Hora: **22:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada:
**16 urtetik aurrera_A partir de 16 años**

Hizkuntza_Idioma: **Gaztelania_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak, itzalak Marionetas de Mesa, Sombras**

Iraupena_Duración: **45'**




Yuma Innui herriko (Kanadako herri autoktono bat) nerabe bat da, eta erdibidean sentitzen da, tiraka nabaritzen baititu, alde batetik, iraganean lurperatuta eta ahaztuta dauzkan erroak eta, bestetik, bere eguneroko mundua. Egun batean ohartuko da ez dagoela bakarrik. Jatorriz Amazonia perutarrekoa den Yara bizilagunak bere istorioa kontatuko dio. Yara istorio ehulea da, hiriko kaleetan saltzen dituen oihaletan ehuntzen ditu istorioak.

Obra honek herri autoktonoak arrozteareen ondorio ugarietako bat azaleratzen du.

*Yuma, un adolescente de origen Innui (un pueblo autóctono de Canadá), se siente tironeado entre sus raíces enterradas y olvidadas en el pasado, y el mundo en el cual creció y vive. Un día, se da cuenta que no está solo. Su vecina, Yara, originaria de la Amazonia peruana, le cuenta su historia. Yara es tejedora de historias, las teje en las telas que vende en las calles de la ciudad.*

*Una obra que nos revela una de las numerosas consecuencias de los desarraigos de los pueblos autóctonos.*

# MAAYAN LUNGMAN

## Israel/Alemania

## "Niyar, una historia de papel"

Eguna_Dia: **Azaroak 25 Noviembre**

Ordua_Hora: **22:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **7 urtetik aurrera_A partir de 7 años**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik Gabe_Sin palabras**

Teknika_Técnica: **Papera_Papel**

Iraupena_Duración: **40'**



"NIYAR" antzerki bisualeko pieza artistiko bat da, norbere helburuak betetzeko nahi eta grinaren istorio betierekoa kontatzen duena. Ikuskizunak oinarritzat hartzen du paperarekin eta paperetan jolastea, horrexek ematen baitie forma eszenatokiko diseinu ederrari eta aurpegirik gabeko paperezko txotxongilo berezi-bereziei. Beraz, aurreko guztiari manipulatzaile-interpretearen fintasuna eta goxotasuna erantsi ondoren, "NIYAR" obrak bidaia poetiko batera gonbidatzen ditu ikusleak, batzuetan zoriontsuak eta besteetan tristeak diren une magikoak bizitzera. Finean, obrak elkarlanean darabiltza objektuen antzerkia, txotxongiloak eta antzerki bisuala, maitasunaren eta aukeramen librearen kontzeptura iristeraino.

*NIYAR es una pieza artística de teatro visual, que cuenta una eterna historia de anhelo y de deseo de autorrealización. El espectáculo reposa sobre el concepto de jugar con y en papel, que es lo que da forma a un hermoso diseño de escenario y a unos títeres de papel, sin rostro, que son absolutamente únicos. Con todo ello, y con la delicadeza y la ternura de la manipuladora-intérprete, NIYAR invita al público a realizar un viaje poético, repleto de momentos mágicos, a veces felices, a veces tristes. Se trata, en definitiva, de una combinación de teatro de objetos, marionetas y teatro visual, que llega hasta el concepto mismo del amor y del libre albedrío.*



# DORA CANTERO

## Murzia_Murcia

## "El tiempo de las tortugas"

Eguna_Dia: **Azaroak 26 Noviembre**

Ordua_Hora: **22:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **16 urtetik aurrera_A partir de 16 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak, bideo-poesiak, zuzeneko musika_Marionetas de Mesa, vídeo poesías, música en directo**

Iraupena_Duración: **55'**



"El tiempo de las tortugas" bidaia emozional bat da maitasunaren eta desamodioaren ur sakonetarantz. Geure armaduraren barnean murgiltzera gonbidatzen gaitu, dortokek bezala, oskola soinean hartuta igeri egiten ikasteko.

Dora Cantero-ren poesia orain lazgarri, orain ironia eta umorez beteekin, eta Joan Bramon Mora-ren presentzia musikal delikatuarekin, dortoka bihurtuko gara, itsas hondotik urazalera joan-etorrian dabiltzala, konturatu gabe, igerian ikasten duten dortoka.

"El tiempo de las tortugas" bidaia-koaderno bat da, lokartzen garenean irensten gaituen dimentsio primarioan bizi ditugun esperientziak biltzen dituena. Irudiz, musikaz eta hitzez elkarri jositako abentura onirikoen bilduma bat, emanaldi poetiko eder bezain sentikor batean.

*El tiempo de las tortugas es un viaje emocional hacia las aguas profundas del amor y el desamor. Un chapuzón hacia el interior de nuestra propia armadura para aprender, como las tortugas, a nadar con nuestro caparazón a cuestas.*

*A través de los poemas de Dora Cantero, a veces desgarrados y otras llenos de ironía y humor, y la delicada presencia musical de Joan Bramon Mora, nos convertimos en tortugas que entran y salen del fondo del mar a la superficie y que, sin darse cuenta, aprenden a nadar.*

*El tiempo de las tortugas es un cuaderno de viaje de las experiencias vividas en esa dimensión reptiliana en la que entramos cuando dormimos. Una recopilación de aventuras oníricas hiladas entre sí por imágenes, música y palabra en una velada poética de gran hermosura y sensibilidad.*




Aurten berriz ere, Titirijai Tolosako kaleetara irtengo da, ikusle leialen bila, eta kaleko ikuskizunak, kalejirak eta beste hainbat emanaldi eskainiko ditu haur zein helduen gozamenerako. Anima zaitezte, hemen dira titiriteroak!

*Un año más el Titirijai sale a las calles de Tolosa al encuentro de su fiel público con una serie de espectáculos de calle, de kalejiras para que disfruten grandes y pequeños… ¡Animaros, llegan los titiriteros!*

topic.

# TRAS LA PUERTA TEATRO

Asturias

## "Tres teatros o cuatro"

Eguna_Dia: **Azaroak 20 Noviembre**

Ordua_Hora: **12:30 eta_y 18:00**

Lekua_Lugar: **Kultur Etxea_Casa de Cultura**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Paperezko antzerkia_Teatro de papel**

Iraupena_Duración: **45'**



Narratzaile bat da. Galduta dator, bere maleta eta antzokiarekin, eta aho-korapiloak, esaldi luzeak, ipuinak eta papera erabiliz, mundu berezi batean murgilduko gaitu, hitz-jokoz, istorioz eta bere irudimenetik ateratako pertsonaiaz betetako munduan.

Hiru istorio edo lau...?

SECRETO DE FAMILIA. Neskato txiki bat da. Sekretu bat dauka. Gaur, ohikoa baino goizago jaiki da eta, ikusi du bere ama... arantzurde bat dela!

DOÑA CARMEN. Asko gustatzen zaio lo egitea baina… animalia-orkestra bat du ohe azpian.

EL HOMBRECITO QUE TENÍA. Hain zen txiroa, ezen ez baitzeukan ezer ere…

INTERCAMBIO CULTURAL. Julitok sei ordu daramatza telebistari begira, eta iragarki batek bere arreta piztu du bat-batean: alda zaitez atzerriko hiritar batekin! Eta Julitok Afrikara joatea aukeratu du.

*Ella, la narradora, llega perdida con sus maletas y sus teatros y a través de trabalenguas, retahílas, cuentos y teatros de papel, nos sumerge en el juego de las palabras, las historias y los personajes de su imaginación.*

*¿Tres historias o cuatro...?*

*SECRETO DE FAMILIA Ella es una pequeña niña. Tiene un secreto. Hoy, se ha levantado más temprano que de costumbre y ha visto que su madre... ¡Es un puercoespín!*

*DOÑA CARMEN A ella le gusta mucho dormir, pero debajo de su cama tiene... ¡una orquesta de animales!*

*EL HOMBRECITO QUE TENÍA Era tan pobre, tan pobre que ya nada tenía...*

*INTERCAMBIO CULTURAL Julito hace 6 horas que mira la tele y un anuncio le llamó la atención: cambie su lugar por el de un ciudadano extranjero, y Julito eligió ir… al África.*



# TOMBS CREATIUS

Katalunia_Cataluña

## "Puck y su troupe"

Eguna_Dia: **Azaroak 21 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00,12:00, 13:00, 16:30, 17:30, 18:30**

Lekua_Lugar: **Zerkausia_Tinglado**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik gabe_Sin texto**

Teknika_Técnica: **Instalazio parte-hartzailea Instalación participativa**

Iraupena_Duración: **45'**



Munduko zinemarik txikiena iraultza batean murgilduta dago. Pertsonaia bizidunek matxinatzea erabaki dute, eta PUCK karabana txikiko pantailatik irtetea ikusleen artean barrabaskeriak egiteko. Animalia fantastikoak, munstroak, alegiazko izaki txikiak, erraldoiak, haur ameslariak, mamuak eta intsektu bitxiak, denek kalea inbadituko dute eta eszenatokitzat hartu, euren istorioak zuzenean azaltzeko. Bi dimentsiorekin ez dute nahikoa! Jolasak mundu handiago bat behar du, eta baita ere irudimen handiko eskuak eta dena egia bihurtuko duten adimen irekiak. PUCKeko koadrila osoa badator mundua hankaz gora jartzera, euren jolasetan proposatzen dizkiguten abentura bizidunak bizitzera, gu geu ere bat gehiago bihurtuz euren koadrila mugagabean. Imajinatu nahi eta ahal dugun bezain mugagabea.

*El cine más pequeño del mundo vive una revolución. Los personajes animados han decidido rebelarse y salir de la pantalla de la pequeña caravana PUCK para hacer de las suyas entre el público. Animales fantásticos, monstruos, pequeñas criaturas imaginarias, gigantes, niños y niñas soñadores, fantasmas e insectos estrafalarios invaden la calle y la toman como escenario para explicar en directo sus propias historias. ¡No tienen suficiente con dos dimensiones! El juego necesita un mundo más grande y también manos imaginativas y mentes abiertas que lo hagan real. Toda la troupe de la PUCK está dispuesta a poner el mundo patas arriba, a vivir las aventuras animadas que nos proponen sus juegos convirtiéndonos en unos personajes más de su pandilla inacabable. Tan infinita como podamos y queramos llegar a imaginar.*

# HOLOQUÉ

## Katalunia_Cataluña

## "El onírico interior"

| | |
|---|---|
| Eguna_Dia: | **Azaroak 21 Noviembre** |
| Ordua_Hora: | **12:00 - 14:00, 17:00 - 19:00 (emanaldiak 20 minuturo_pases cada 20 minutos)** |
| Lekua_Lugar: | **Berdura plaza_Plaza Verdura** |
| Gomendatutako adina_Edad recomendada: | **Familiarra_Familiar** |
| Hizkuntza_Idioma: | **Hitzik gabe_Sin texto** |
| Teknika_Técnica: | **Hologramak_Hologramas** |
| Iraupena_Duración: | **12'** |



Publiko guztientzako pieza labur bat, non aktore-manipulatzaile batek txotxongilo holografiko eta objektuekin elkarreragiten baitu. Hakan protagonista ohartuko da bere barrua hutsik duela. Argia itzali egin dela. Une horretan, argi hori berreskuratzeko bidaia bati ekingo dio, baina ez da bakarrik joango: ondoan izango ditu bizia hartuko duten hainbat objektu pertsonal eta ametsezko munduan gidatuko duten hologramak. Abentura hau hamasei lagunentzako moduko etxola batean gertatuko da, material birziklatuekin eraikia eta Inken tradizioan inspiratua.

"El onírico INTERIOR" obra Fira Tàrrega 2016 jaialdian estreinatu zen, eta harrezkero hainbat azoka eta jaialditan parte hartu du Taiwan, Danimarka, Suedia, Luxenburgo, Erresuma Batu, Alemania, Belgika, Turkia, Errumania, Portugal eta Espainian.

*Una pieza breve para todos los públicos donde un actor-manipulador interactúa con títeres holográficos y objetos. El protagonista, Hakan, se da cuenta que su interior está vacío. Su luz se ha apagado. En ese punto es cuando inicia un viaje para recuperarla, un camino que compartirá con diversos objetos personales que toman vida y con hologramas reales a través del mundo onírico. Una aventura que transcurre en una cabaña con capacidad para dieciséis personas construida con materiales reciclados y con una estética inspirada en la tradición inca.*

*El onírico INTERIOR se estrenó en la Fira Tàrrega 2016 y ha participado en distintas ferias y festivales de Taiwán, Dinamarca, Suecia, Luxemburgo, Reino Unido, Alemania, Bélgica, Turquía, Rumanía, Portugal y España.*



# TITELLES DE LLEIDA

## Katalunia_Cataluña

## "Kujira"

| | |
|---|---|
| Eguna_Dia: | **Azaroak 27 Noviembre** |
| Ordua_Hora: | **12:30 eta_y 18:00** |
| Lekua_Lugar: | **Emeterio Arrese (12:30)_Plaza Zaharra (18:00)** |
| Gomendatutako adina_Edad recomendada: | **Familiarra_Familiar** |
| Hizkuntza_Idioma: | **Hitzik gabe_Sin texto** |
| Teknika_Técnica: | **Kalejira_Pasacalles** |
| Iraupena_Duración: | **20'** |



Bazenekien baleek kantatu eta negar egiten dutela? Kujira balea urdin kume bat da. Balea urdina munduan inoiz izan den animalia handi eta indartsuena da, baina negar egiten du gure planeta zoragarria nola hondatzen dugun ikustean. Kujirak bidaia luze bati ekin dio, bere negarra eta kantua gizakiei entzunarazteko. Klima aldaketaz, kutsaduraz eta planetako baliabideen gehiegizko ustiapenaz ohartarazi nahi gaituen negarra.

Ikuskizun ibiltari honetan, balea urdin erraldoi bat hirian barrena abiatzen da bere kantua entzunaraziz. Bizitzari eta ingurumenarekiko errespetuari eskainitako kantua da, ikusleak ohartarazten dituena klima larrialdiarekiko dugun erantzukizun kolektiboaz.

*¿Sabías que las ballenas cantan y también lloran? Kujira, una cría de ballena azul, el animal más grande y fuerte que jamás ha existido en la tierra, llora al ver cómo deterioramos este maravilloso planeta. Kujira ha emprendido un largo viaje para hacer oír su llanto y su canto entre los humanos. Un canto de alarma contra el cambio climático, la contaminación y la sobreexplotación de los recursos del planeta.*

*Un espectáculo itinerante en el que una imponente ballena azul se abre camino por la ciudad haciendo oír su canto. Un canto a la vida y al respeto por el medio ambiente, que interpela al espectador sobre la responsabilidad colectiva hacia la emergencia climática.*

# ALAUDA TEATRO

## Gaztela-Leon
## Castilla-Leon

## “Ingenii Machina”

Eguna_Dia: **Azaroak 28 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00, 12:00, 13:00, 16:30, 17:30, 18:30**

Lekua_Lugar: **Zerkausia_Tinglado**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik gabe_Sin texto**

Teknika_Técnica: **Instalazio parte-hartzailea**
**Instalación participativa**

Iraupena_Duración: **20’**



Kaleko animazio ikuskizuna, tamaina handikoa, elkarreragin ludikoa eta publikoaren dibertsioa bilatzeko asmoz sortutako tramankulu mekanikoetan oinarritua.

Guztira, asmamen handiko zazpi atrakzio izango dira ikusgai:

- 5 metroko garaiera duen txotxongilo erraldoi bat, ikusleek manipulatua.
- 5x5 metroko karpa bat, zurezko automata mekanikoz betea, ikusleek mugiaraz ditzaten. Mekanismoak ulertzeko hainbat panel egongo dira, automatak eraikitzeko erabili ohi diren mekanismo eta engranaje desberdinei buruz.
- 4 panel desberdin, publikoak martxan jarri ahal izango dituen 16 mekanismorekin
- Mekanismoei buruzko azalpenezko 2 panel, funtzionamenduaz gain, egungo makinerian non erabiltzen diren adieraziz.

Espectáculo de animación de calle de gran tamaño basado en diversos artilugios mecánicos, creados con la intención de buscar la interacción lúdica y diversión del público.

En total se podrán disfrutar siete atracciones de ingenio:

- Una marioneta gigante de 5 metros de altura, manipulada por el propio público.
- Una carpa de 5m x 5m con autómatas mecánicos, construidos en madera, que el público podrá poner en movimiento. Para la comprensión del asunto, habrá una serie de paneles con los diversos mecanismos y engranajes que se utilizan habitualmente en la construcción de los autómatas.
- 4 paneles con 16 mecanismos que podrá accionar el público



Kaleko animazio ikuskizuna, tamaina handikoa, elkarreragin ludikoa eta publikoaren dibertsioa bilatzeko asmoz sortutako tramankulu mekanikoetan oinarritua.

Guztira, asmamen handiko zazpi atrakzio izango dira ikusgai:

- 5 metroko garaiera duen txotxongilo erraldoi bat, ikusleek manipulatua.
- 5x5 metroko karpa bat, zurezko automata mekanikoz betea, ikusleek mugiaraz ditzaten. Mekanismoak ulertzeko hainbat panel egongo dira, automatak eraikitzeko erabili ohi diren mekanismo eta engranaje desberdinei buruz.
- 4 panel desberdin, publikoak martxan jarri ahal izango dituen 16 mekanismorekin
- Mekanismoei buruzko azalpenezko 2 panel, funtzionamenduaz gain, egungo makinerian non erabiltzen diren adieraziz.
- Karabana – kamera ilun bat. Bertan, argazki kamera baten funtzionamendua erreproduzituko da, zeinak kanpoaldeko espazioa eta mugimendua atzematen eta islatzen baititu lente baten bidez.
- Zurezko enigma-piramide handi bat, aginte, botoi, manibela, tiradore eta abarrez betea. Guztiak ukitu ahala, irekitzeko sekretua zein den erakutsiko digu. Eta irekitzea lortuz gero, sorpresa bat izango du barruan. Atrakzio hau ikusmen ezgaitasuna duten pertsonentzat egokituta dago.
- Garabiak eta txirrikak; soilik mekanismo eta txirrikekin eraikitako garabi bat, non 3 jokalarik palankei eragin beharko baitiete kaxa batean dauden objektuak garraiatzeko. Lan horretarako elkarrekin lan egin eta elkarren artean koordinatu beharko dute.
- Helize batekin eta garapen mekaniko batekin hornitutako triziklo bat; pedalei eragitean, mugimenduak behar beste energia sortuko du organotxo bat martxan jarri eta haren musikarekin ingurua girotzeko.

Ikuskizuna egokia da mota guztietako publikoentzat. Jarduerari buruzko kartel informatiboak egongo dira.

Espectáculo de animación de calle de gran tamaño basado en diversos artilugios mecánicos, creados con la intención de buscar la interacción lúdica y diversión del público.

En total se podrán disfrutar siete atracciones de ingenio:

- Una marioneta gigante de 5 metros de altura, manipulada por el propio público.
- Una carpa de 5m x 5m con autómatas mecánicos, construidos en madera, que el público podrá poner en movimiento. Para la comprensión del asunto, habrá una serie de paneles con los diversos mecanismos y engranajes que se utilizan habitualmente en la construcción de los autómatas.
- 4 paneles con 16 mecanismos que podrá accionar el público
- 2 paneles explicativos de los mecanismos expuestos, donde además su funcionamiento indicará su aplicación en la maquinaria actual.
- Una caravana – cámara oscura que reproduce en su interior el funcionamiento de una cámara fotográfica que capta y refleja con una lente el espacio exterior y todo su movimiento.
- Una pirámide enigma de madera de gran tamaño repleta de mandos, botones, ruedas, manivelas, tiradores etc, que nos irá desvelando según la manipulemos cuál es el secreto de su apertura. Si se consigue, nos espera una sorpresa. Esta atracción está adaptada para personas con discapacidad visual.
- Grúas y poleas, una grúa construida exclusivamente con mecanismos y poleas, en la que 3 jugadores tendrán que, accionando unas palancas, conseguir transportar objetos depositados en una caja, necesitando para ello una máxima colaboración y coordinación entre ellos.
- Un triciclo con una hélice y un desarrollo mecánico en el que al pedalear, su movimiento genera la energía suficiente para la alimentación eléctrica y puesta en marcha de un organillo que con su música ambienta el recinto.

El espectáculo está indicado para todos los públicos. Se dispondrá de carteles informativos e indicadores de la actividad

# ESKOLETARAKO PROGRAMAZIOA
# PROGRAMACIÓN ESCOLAR



## TEATRE DE L'ABAST_"Rob"

### Valentzia_Valencia

Eguna_Dia: **Azaroa 22 eta_y 23 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **Leidor Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **7 urtetik aurrera**
**A partir de 7 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Manipulación zuzena_Manipulación directa**

Iraupena_Duración: **60'**

Rob itsasontzi hartara sartu zenean, ez zekien ontzia ez zela sekula iritsiko portura. Edo, akaso, patuak toki horixe zeukan gordeta berarentzat. Uharte bat, non gauza bakarra aurkituko baitzuen: bere burua. Bizitza noraezean doanean, zaila da jakiten zein den gure portua. Eta erreskatearen zain gauden bitartean, irudimena da gure salbamendu ontzi bakarra.

*Cuando Rob se subió a ese barco no sabía que nunca llegaría a su destino. O tal vez, el destino, le tenía reservado ese lugar. Una isla en la que lo único que encontrará será a sí mismo. Cuando la vida va a la deriva, es difícil saber cuál es nuestro puerto. Y mientras vienen a rescatarnos, la imaginación se convierte en nuestro único bote salvavidas.*



## YMEDIO TEATRO_"Eco"

### Andaluzia_Andalucia

Eguna_Dia: **Azaroa 22 eta_y 23 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik gabe_Sin texto**

Teknika_Técnica: **Pailazoa, mahaiko txotxongiloa, objektuak**
**Payasos, Marionetas de mesa, objetos**

Iraupena_Duración: **55'**

**Ymedioteatro** konpainiak bere proposamen pertsonal eta zirraragarriena aurkezten digu. Jolasa da sorkuntzaren jatorria, lotsarik eta beldurrik gabe, ahalegin betean eta denak emanda: txotxongiloak, objektuak, eszenografia, argiztapena, emozioak, musika eta mugimendua. Ikusizko metaforen dantza, bizitzara lotzen gaituen poesiaz mintzatzen den ikuskizun komiko baten baitan.

***Ymedioteatro** presenta su propuesta más personal y vibrante. El juego es el origen de la creación, sin pudor, sin miedo, a por todas y con todo: los títeres, los objetos, la escenografía, la iluminación, las emociones, la música y el movimiento. Un baile de metáforas visuales para un espectáculo cómico que habla de la poesía que nos ata a la vida.*



## PANDURO TEATRO
## "La ciudad inventada"

### Extremadura

Eguna_Dia: **Azaroa 24 eta_y 25 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **Leidor Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mahaiko txotxongiloak**
**Marionetas de mesa**

Iraupena_Duración: **50'**

Hiri berri bat jaio da irudimenaren geografian. Hiriak etengabe mugitzen dira, gero eta pertsona gehiago hartzen dituzte beren baitan: beste kultura batzuetakoak, bizitza ikusteko eta ulertzeko modu desberdinak dituztenak, beste literatura eta ipuin batzuetakoak… Toki eta jatorri anitzetakoak izan arren, elkarren ondoan bizi diren bost pertsona elkartuko ditugu hemen. Pertsonekin gertatzen den bezala, istorioak ere elkarrekin erlazionatzen eta nahasten dira, elkar aberasten dute, eta mundua bera bezain mestizoa den istorio bat sortzen dute.

*Ha nacido una nueva ciudad en la geografía de la imaginación. Las ciudades están en constante movimiento, cada vez acogen a más personas que llegan de otras culturas, de otras formas de ver y entender la vida, de otras literaturas, de otros cuentos… Aquí uniremos a cinco que cohabitan y se mezclan, aun siendo de lugares y procedencias muy diversas. Como ocurre con las personas, se relacionan entre sí, se entremezclan y enriquecen, dando lugar a una historia mestiza, como lo es este mundo.*



## DI FILIPPO MARIONETTE
## "Variaciones"

### Italia

Eguna_Dia: **Azaroa 24 eta_y 25 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **Familiarra_Familiar**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik gabe_Sin palabras**

Teknika_Técnica: **Harizko txotxongiloak_Marioneta de hilo**

Iraupena_Duración: **53'**

Ikuskizun honetan, Protok bidaia oso pertsonal bat biziko du, jaio zen unetik hasita, eta bere izatearen hainbat etapa garrantzitsu ikusiko ditugu. Bere bizitasunari esker, gaurkotasun handiko gaiak aztertuko ditugu ironiaz eta poesiaz bustirik, besteak beste, teknologia eta gure benetako izatearen hauskortasuna eta kontzientzia.

*En este espectáculo Proto vive un viaje muy personal que parte de su nacimiento y pasa por varias etapas fundamentales de su existencia. Gracias a su vitalidad atravesamos con la ironía y la poesía temas de gran actualidad como la tecnología, la fragilidad y la conciencia de quiénes somos en realidad.*



## BAYCHIMO TEATRO
## "La leyenda de Sally Jones"

### Extremadura

Eguna_Dia: **Azaroa 26 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **Leidor Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **6 urtetik aurrera**
**A partir de 6 años**

Hizkuntza_Idioma: **Erdaraz_Castellano**

Teknika_Técnica: **Mistoa_Mixta**

Iraupena_Duración: **65'**

Sally Jonesen legendak garai txarrean jaiotako gorila baten istorioa kontatzen digu; ilargirik eta izarrik gabeko gau batean jaio zen, eta horregatik, lan eskergaz eta zorigaiztoz betetako bizitza bat izatea zuen patu. Zoritxarrak berehala agertu ziren: Belgikako legez kanpoko ehiztariek gatibu hartu zuten eta boli merkatari turkiar bati saldu, hark bere emazte apetatiari oparitu ziezaion.

*La leyenda de Sally Jones nos cuenta la historia de una gorila nacida en mala hora, una noche sin luna ni estrellas, y condenada, por ello, a vivir una vida de grandes trabajos y desventuras. Éstas no tardan en presentarse en forma de cazadores furtivos belgas que la capturan y la venden a un comerciante de marfil turco, que se la quiere regalar a su caprichosa prometida.*



## MAAYAN LUNGMAN
## "Niyar, una historia de papel"

### Israel/Alemania

Eguna_Dia: **Azaroa 26 Noviembre**

Ordua_Hora: **11:00 eta_y 14:00**

Lekua_Lugar: **TOPIC Antzokia**

Gomendatutako adina_Edad recomendada: **7 urtetik aurrera**
**A partir de 7 años**

Hizkuntza_Idioma: **Hitzik gabe_Sin palabras**

Teknika_Técnica: **Papera_Papel**

Iraupena_Duración: **40'**

"NIYAR" antzerki bisualeko pieza artistiko bat da, norbere helburuak betetzeko nahi eta grinaren istorio betierekoa kontatzen duena. Ikuskizunak oinarritzat hartzen du paperarekin eta paperetan jolastea, horrexek ematen baitie forma eszenatokiko diseinu ederrari eta aurpegirik gabeko paperezko txotxongilo bereziberereziei. Beraz, aurreko guztiari manipulatzaile-interpretearen fintasuna eta goxotasuna erantsi ondoren, "NIYAR" obrak bidaia poetiko batera gonbidatzen ditu ikusleak, batzuetan zoriontsuak eta besteetan tristeak diren une magikoak bizitzera.

*NIYAR es una pieza artística de teatro visual, que cuenta una eterna historia de anhelo y de deseo de autorrealización. El espectáculo reposa sobre el concepto de jugar con y en papel, que es lo que da forma a un hermoso diseño de escenario y a unos títeres de papel, sin rostro, que son absolutamente únicos. Con todo ello, y con la delicadeza y la ternura de la manipuladora-intérprete, NIYAR invita al público a realizar un viaje poético, repleto de momentos mágicos, a veces felices, a veces tristes.*



## UDAZKEN ESKOLA
## ESCUELA DE OTOÑO

### Obra bat, Mila eta bat Ikuskizun
### Una obra mil y un espectáculos

Datak / Fechas: **21. 11. 2021 - 27. 11. 2021**

Lekua / Lugar: **TOPIC**

Ordua / Hora: **15:00 - 20:00**

Irakasleak_Profesores: **Alain Lecucq & Narguess Majd**

Ikastaroaren iraupena_Horas lectivas: **40'**

Bost urte daramatzagu Udazkeneko Eskola antolatzen. Gure inguru-rako oso beharrezkoa den kalitatezko prestakuntza espazio bat da, ez daukagulako etengabeko prestakuntza arauturik. Beste behin UNIMA Euskalherria eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eman diguten babesari esker, aurten gurekin izango dugu Paperezko Antzerkian munduko espezialista handiena den Alain Lecucq, eta baita ere bere ikasle eta ondorengo Narguess Majd. Biak hala biak euren ezagutza transmititzen ahaleginduko dira V. Udazkeneko Eskola honetan.

Ikastaro berritzaile bat izango da, non tradizioa eta forma garaikideak uztartuko baititugu. Izan ere, batetik XIX. mendean sortutako paperezko antzerkiaren teknika garatuko dugu, baina bestetik, antzerki teknika garaikidea eta antzeko beste baliabide batzuk erabiliko ditugu istorio anitzagoak kontatzeko, gaur egungo baliabide estetiko eta teknikoen laguntzaz.

*Cinco años ya organizando la Escuela de Otoño, un espacio de formación de calidad tan necesario en nuestro entorno, donde carecemos de una formación continua y reglada. Gracias un año más a la complicidad de UNIMA Euskalherria y del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, vamos a contar con el mayor especialista en Teatro de Papel que existe en la actualidad, Alain Lecucq, y su alumna y sucesora Narguess Majd, ambos van a transmitir su saber en esta V Escuela de Otoño.*

*Se trata de un curso innovador en el que se combina la tradición con la contemporaneidad ya que se va a desarrollar la técnica del teatro de papel, iniciada en el siglo XIX, utilizando al mismo tiempo recursos como los de una técnica teatral contemporánea que sirve para contar las historias más diversas, y utilizando recursos estéticos y técnicos del momento actual.*

## HIZKETALDIAK
## CONVERSACIONES

Datak / Fechas: **Azaroak 22, 23, 24, 25, 26 de Noviembre**

Ordua / Hora: **23:00**

Lekua / Lugar: **TOPIC-eko edaritegian_Ambigú del TOPIC**

Gaueko helduen ikuskizunaren ostean, artistekin mintzatzeko, euren lanari, zailtasunei buruz gehiago ikasteko aukera da hau. Nola aukeratzen dituzte gaiak? Eta teknikak? Eta Musika?...

Cada noche después del espectáculo de adultos, tendremos la posibilidad de charlar con los artistas, de forma informal y distendida, para conocer un poco más sobre su trabajo, sus dificultades, cómo eligen los temas, las técnicas que utilizan, la música...

## JARDUNALDIAK
### Europako txotxongilolarien prestakuntzari eta profesionalizazioari buruzko gogoetak

## JORNADAS INTERNACIONALES
### Reflexiones sobre la Formación y Profesionalización del marionetista en Europa

Datak / Fechas: **23. 11. 2021 - 27. 11. 2021**

Lekua / Lugar: **Ambigú TOPIC edaritegia**

Ordua / Hora: **17:00 - 19:00**

Testuinguru profesionalari erreparatuta, praktika ere oso desberdina da. Testuinguru profesional deitzen diogu artistek eta sareek duintasunez ordaindu eta aitortutako esparru batean jarduteko duten gaitasunari.

Gainera, proiektu honetako herrialde gehienetan ez dago arloko profesionalen azterketa edo erreferentziarik; Frantzian eta Espainian egin dira, eta beste bat martxan dago Italian, baina gehienek ez daukate testuinguru legal edo sozialik oinarritzat.

Elementu desberdin horien ondorioz, artistak egoera oso prekarioan bizi dira, eta igaro dugun osasun krisiak agerian utzi du hori.

Azkenik, proiektuko herrialde gehienetan, txotxongiloaren munduan lan egiten duten artista eta egiturek ez daukate solaskide espezifikorik erakunde publikoetan –Frantzian izan ezik-.

Horregatik, eta Europako proiektuaren abiapuntu gisa, iaz hasi ginen jardunaldi hauek antolatzen digitalki, eta aurten jarraipena emango diegu presentzialki, txotxongiloen munduko artistek prestakuntza zein profesionalizazio arloetan dituzten premiei buruz eztabaidatzeko.

Helburu horrekin, Europan eta Estatuan erreferentziazkoak diren profesional handiak bildu ditugu

*En Europa los distintos estados se encuentran en diferentes niveles en términos de acceso a la educación o formación del artista marionetista. El TOPIC de Tolosa se encuentra inmerso en un proyecto junto con otras seis instituciones de cinco países europeos de los cuales algunos de ellos tienen formación: Francia, Bélgica, Eslovenia y otros no: España, Italia, Grecia.*

*La práctica en un contexto profesional es también muy desigual. Por marco profesional entendemos la capacidad de los artistas y las redes en las que circulan para ejercer en un marco dignamente remunerado y declarado.*

*Además, no hay estudio y referenciación de profesionales en la mayoría de los países del proyecto: se han realizado estudios en Francia y España, otro está en marcha en Italia, muchos realmente no tienen un marco legal y social en el que apoyarse.*

*Estos diferentes elementos tienen el efecto de poner a los artistas en una situación muy precaria, que la crisis de salud que hemos atravesado ha dejado en evidencia.*

*Finalmente, en la mayoría de los países del proyecto, los artistas y estructuras que trabajan en el campo de las artes de la marioneta no tienen un interlocutor específico en las instituciones públicas, excepto en Francia.*

*Por ello y como punto de partida del proyecto europeo iniciamos el año pasado estas jornadas de forma digital que continuamos este año de forma presencial, para debatir sobre las necesidades de los marionetistas tanto en el campo de la formación, como en el de la profesionalización.*

Para ello hemos reunido a grandes profesionales referentes en la materia del panorama europeo y estatal.

## EGITARAUA_PROGRAMA

**23/11/2021, 17:00-19:00**

Jardunaldietako I. saioa "Formación del marionetista, en los países sin formación reglada", **Lucile Bodson, Fabrizio Montecchi, Alfred Casas eta Juanjo Herrero-ren parte-hartzearekin**

*I sesión de las Jornadas sobre "Formación del marionetista, en los países sin formación reglada" con la participación de:* ***Lucile Bodson, Fabrizio Montecchi, Alfred Casas y Juanjo Herrero***

**24/11/2021, 17:00-19:00**

Jardunaldietako II. saioa: "Acompañamiento de Compañías y Residencias de Creación", **Sylvie Baillon, Emmanuelle Castang eta Lola Lara**-ren parte-hartzearekin

*II Sesión de las Jornadas sobre "Acompañamiento de Compañías y Residencias de Creación" con la participación de:* ***Sylvie Baillon, Emmanuelle Castang y Lola Lara***

**25/11/2021, 17:00-19:00**

Jardunaldietako III. saioa: "Importancia de la programación de Teatro para público joven", **Françoise Flabat, Uroš Karancan eta Jose Luis Melendo** parte-hartzearekin

*III Sesión de las Jornadas sobre "Importancia de la profesionalización en el Teatro de Marionetas" con la participación de:* ***Françoise Flabat, Uroš Karancan y José Luis Melendo***

**26/11/2021, 17:00-19:00**

Jardunaldietako IV. saioa: "Sobre la importancia de las MOOC – Formaciones on-line", **Karmele Cruz, Stathis Markopoulos, Jordi Palet eta Estitxu Zaldua.**

*IV Sesión de las Jornadas sobre la importancia de las "MOOC – Formaciones on-line" con la participación de:* ***Karmele Cruz , Stathis Markopoulos, Jordi Palet y Estitxu Zaldua.***

**27/11/2021, 10:00-12:00**

Jardunaldietako V. eta azken saioa: ondorioak

*V y última sesión de las Jornadas - conclusiones.*

## ERAKUSKETAK_EXPOSICIONES

Datak / Fechas: **20-11-2021 / 01-05-2022**

Lekua / Lugar: **TOPIC Aldizkako erakusketa**
**Exposición temporal**

Ordua / Hora: **10:00 - 20:00**
**(horario Titirijai 20-11-2021 / 28-11-2021)**

**4€ helduak_adultos / 3€ haurrak_niños**



### Paperezko Antzerkia

Paperezko antzerkia Ingalaterran jaio zen 1811n familia-antzerki gisa Europa osora zabalduz, XX. mendearen hasiera arte. Hainbat urtez ahaztuta egon ondoren, duela hogeita hamar bat urte itzuli zen eszenatokietara mundu osoko artistei esker. Antzerki hau bai haurrei bai helduei zuzenduta dago.

Praktika honen aitzindarietako bat Alain Lecucq da, espezialitate honek Europan duen erreferentzia-izen handiena. Bere ibilbide profesional osoan zehar sorturiko lanaren bilduma batez osatutako erakusketa eskaintzen dugu, erakusketa honetarako bereziki, bilduma pribatuetatik eta beste herrialde batzuetako museoetatik ekarri diren obrekin. Paperezko antzerkiaren historiari errepaso bat emango diogu, XIX. mendearen hasierako praktika horren garapenari buruzko dokumentu eta piezekin hasita. Ondoren, Paperezko antzerki garaikidearekin jarraituko dugu, ikuskizunen laburpenak aurkeztuko dituen bideoekin batera. Zatoz erakusketa berezi honetara!

### Teatro de Papel

Nacido en Inglaterra en el año 1811, el teatro de papel se extendió por toda Europa como teatro de familia hasta principios del siglo XX. Después de años de olvido, renació hace una treintena gracias a artistas de todo el mundo. Es un teatro dirigido tanto al público infantil como al adulto.

Uno de los precursores de esta práctica es Alain Lecucq, el gran nombre de referencia de esta especialidad en Europa, que nos ofrece una exposición compuesta por un compendio de la obra que ha ido fraguando durante toda su carrera y obras de colecciones privadas y museos de otros países que se han reunido especialmente para esta exposición. Haremos un recorrido por la historia del teatro de papel, comenzando con documentos y piezas relativas al desarrollo de esta práctica a principios del siglo XIX. Seguiremos con la presentación del teatro de papel contemporáneo acompañada por un vídeo que mostrará extractos de espectáculos. ¡Anímate a visitar esta exposición, es única en su género!



## ERAKUSKETAK_EXPOSICIONES

Datak / Fechas: **16-11-2021 / 16-12-2022**

Lekua / Lugar: **Ambigu TOPIC edaritegia**

Ordua / Hora: **10:00 - 20:00**
**(horario Titirijai 20-11-2021 / 28-11-2021)**

Prezioa_Precio: **Doan_Gratuito**




### Biniloko diskak eta txotxongiloak

Lleidako Txotxongilo Zentroak binilozko diskoen eta txotxongilo munduaren arteko harremana isladatzen duen erakusketa berezi bat dakarkigu. Bertan, txontxongiloei erreferentzia egiten dien hainbat binilo karatulen bilduma eskeintzen dizuege bakoitzaren musika entzuteko aukerarekin batera.

### Discos de vinilo y Marionetas

*El centro de Títeres de Lleida nos trae una exposición singular compuesta por la combinación de discos de vinilo y el mundo del títere. En ella podremos disfrutar de una muestra de varías carátulas haciendo alusión a los títeres o marionetas donde existe la posibilidad de escuchar la música de las mismas.*

## OMENALDIAK_HOMENAJES

Txotxongiloaren munduak bizirik jarraitzea zerbait heroikoa da ia, batik bat txotxongiloak artetzat hartu ez dituen herrialde batean, nahiz eta kopuruek erakusten duten oihartzun handia dutela, nagusiki ikusle kopuruari erreparatzen bazaio: 3.635.000 ikuslek **enplegu zuzena** ematen diete 2.822 artistari, 55.000.000 euroko urteko fakturazioa sortuz (2018ko datuak). Zenbaki horiek erakusten digute sektore garrantzitsu bat dela arte eszenikoen barruan, Espainian halakotzat hartzen ez bada ere. Horregatik uste dugu, urtez urte ZUTIK eta arrakastak biltzen jarraitzea badela nahiko arrazoi aitortzak eta omenaldiak egiteko. Horregatik, aurtengo omenduak dira:

**Teatralia** - diziplina anitzeko jaialdiari bere zilarrezko ezteiengatik.

**Charleville-Mézières-eko Txotxongilo Antzerkien Munduko Jaialdia** - Duela 60 urte hasi zen, eta munduko jaialdirik garrantzitsuena da gaur egun.

**Dadi Pudumjee,** Indiako Txotxongilo Artearen txotxongilolari iraultzailea, Indiako txotxongilolari garaikide gehienen maisua. Eskuzabala den gizona, lan handia egin du haurrekin, batez ere kaleko haurrekin, eta asko trebatu ditu lanbide desberdinetan.

*La continuidad en el mundo de la marioneta es casi un acto heroico, en un país en el que ha sido un arte no considerado como tal, a pesar de que las cifras demuestran que tiene una gran repercusión sobre todo en lo que respecta al número de espectadores: 3.635.000 espectadores da empleo* ***directo*** *a 2.822 artistas y tiene una facturación anual de 55.000.000€ (datos de 2018). Estas cifras nos demuestran que es un sector importante en las artes escénicas aunque en España no es considerado como tal. Por eso creemos que el seguir EN PIE y cosechando éxitos después de una serie de años, merece nuestro reconocimiento y homenaje, por eso este año queremos homenajear a:*

***Teatralia*** *- un Festival pluridisciplinar celebra las bodas de plata.*

***Festival Mundial de Teatros de Marionetas de Charleville Mézières*** *- 60 años que comenzó este Festival, el Festival más importante del mundo.*

***Dadi Pudumjee,*** *marionetista indio revolucionario del Arte de la Marioneta en la India, maestro de la mayoría de los marionetistas contemporáneos indios. Un hombre generoso donde los haya, a lo largo de los años ha trabajado intensamente con niños, especialmente con niños de la calle y han sido muchos a los que ha formado en un oficio.*

# EGITARAU OROKORRA — PROGRAMA GENERAL

| LARUNBATA<br>20<br>SÁBADO | IGANDEA<br>21<br>DOMINGO | ASTELEHENA<br>22<br>LUNES | ASTEARTEA<br>23<br>MARTES | ASTEAZKENA<br>24<br>MIÉRCOLES | OSTEGUNA<br>25<br>JUEVES | OSTIRALA<br>26<br>VIERNES | LARUNBATA<br>27<br>SÁBADO | IGANDEA<br>28<br>DOMINGO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **TOLOSAN - EN TOLOSA** | | | | **TOLOSAN - EN TOLOSA** | | | | |
| | | **Teatro Leidor Antzokia: Familiarra_Familiar** | | **Teatro Leidor Antzokia: Familiarra_Familiar** | | | | |
| | | 11:00 - 14:00<br>**TEATRE DEL'ABAST**<br>*Rob* | 11:00 - 14:00<br>**TEATRE DEL'ABAST**<br>*Rob* | 11:00 - 14:00<br>**PANDURO**<br>*La ciudad inventada* | 11:00 - 14:00<br>**PANDURO**<br>*La ciudad inventada* | 11:00 - 14:00<br>**BAYCHIMO TEATRO**<br>*La leyenda de Sally Jones* | 17:00<br>**BINEFAR**<br>*Maricastaña* | |
| **Teatro Topic Antzokia: Familiarra_Familiar** | | | | **Teatro Topic Antzokia: Familiarra_Familiar** | | | | |
| 18:30<br>**XIP XAP**<br>*Hamelín* | 18:30<br>**YMEDIO TEATRO**<br>*Eco* | 11:00 - 14:00<br>**YMEDIO TEATRO**<br>*Eco* | 11:00 - 14:00<br>**YMEDIO TEATRO**<br>*Eco* | 11:00 - 14:00<br>**DI FILIPO**<br>*Variaciones* | 11:00 - 14:00<br>**DI FILIPO**<br>*Variaciones* | 11:00 - 14:00<br>**MAAYAN LUNGMAN**<br>*"NIYAR - una historia de papel"* | 18:30<br>**ANTAMAPANTAHOU**<br>*The strings of music* | 18:30<br>**4 LUNAS**<br>*Azul como un trazo de mar* |
| **Sala Premontajes Aretoa_topic_Haurtxoak_Bebés** | | | | | | | **Sala Premontajes Aretoa_topic_Haurtxoak_Bebés** | |
| 12:00 - 17:00<br>**RAUXA TEATRO**<br>*Teatro de papel* | 12:00 - 17:00<br>**EL RETABLO**<br>*Kalek historia de un caballo* | | | | | | 12:00 / 17:00<br>**PARTICULAS ELEMENTARES**<br>*Nido* | 12:00 / 17:00<br>**PARTICULAS ELEMENTARES**<br>*Nido* |
| | | **topic Antzokia: Helduak_Adultos** | | **topic Antzokia: Helduak_Adultos** | | | | |
| | | 22:00<br>**4 Creaciones<br>4 Continentes<br>Cia. AMERICANA<br>Cía. EUROPEA**<br>*Customs* | 22:00<br>**MANU MANSILLA**<br>*Coctel* | 22:00<br>**ALAS NEGRAS**<br>*DeráciNés* | 22:00<br>**MAAYAN LUNGMAN**<br>*"NIYAR - una historia de papel"* | 22:00<br>**DORA CANTERO**<br>*El Tiempo de las tortugas* | | |
| | | **topic Ambigú: Hizketaldia_Charla** | | **topic Ambigú: Hizketaldia_Charla** | | | | |
| | | 23:00 - 01:00<br>**Cia. AMERICANA<br>Cía. EUROPEA** | 23:00 - 01:00<br>**MANU MANSILLA** | 23:00 - 01:00<br>**ALAS NEGRAS** | 23:00 - 01:00<br>**MAAYAN LUNGMAN** | 23:00 - 01:00<br>**DORA CANTERO** | | |
| **Kaleko Ikuskizunak_Espectáculos de Calle** | | | | | | | **Kaleko Ikuskizunak_Espectáculos de Calle** | |
| Kultur Etxea<br>Casa de cultura | Zerkausia<br>Tinglado | | | | | | Emeterio Arrese (1)<br>Plaza Zaharra (2) | Zerkausia<br>Tinglado |
| 12:30, 18:00<br>**TRAS LA PUERTA**<br>*Tresteatroscuatro* | 11:00, 12:00, 13:00,<br>16:30, 17:30, 18:30<br>**PUCK Y SU TROUPE**<br>*Tromb creatius* | | | | | | 12:30 (1)<br>18:00 (2)<br>**TITELLES DE LLEIDA**<br>*Kujira* | 11:00, 12:00, 13:00,<br>16:30, 17:30, 18:30<br>**ALAUDA TEATRE**<br>*Ingeni Machina* |
| | **Plaza Verdura** | | | | | | | |
| | Sesiones de 20min.,<br>de 12 h. a 14h. y de<br>17:00 a 19:00 h<br>**HOLOQUE**<br>*El Onirico interior* | | | | | | | |
| **ZIRKUITUA_CIRCUITO** | | | | **ZIRKUITUA_CIRCUITO** | | | | |
| **Eibar** | | | | **Ordizia** | | **Sestao** | **Sestao** | **Sestao** |
| 17:00<br>**OLA MUCHIN**<br>*Kukuryku* | | | | 17:30<br>**OLA MUCHIN**<br>*Kukuryku* | | 19:00<br>**ANTAMAPANTAHOU**<br>*The strings of music* | 17:00, 19:00<br>**MAAYAN LUNGMAN**<br>*"NIYAR - una historia de papel"* | 17:00<br>**OLA MUCHIN**<br>*Kukuryku* |
| | | **Pasaia** | **Pasaia** | **Pasaia** | **Pasaia** | **Pasaia** | | **Zarautz** |
| | | 11:00<br>**XIP XAP**<br>*Hamelí* | 11:00<br>**MAAYAN LUNGMAN**<br>*"NIYAR - una historia de papel"* | 11:00<br>**YMEDIO TEATRO**<br>*Eco* | 11:00<br>**BAYCHIMO TEATRO**<br>*La leyenda de Sally Jones* | 11:00<br>**OLA MUCHIN**<br>*Kukuryku* | | 16:45<br>**ANTAMAPANTAHOU**<br>*The strings of music* |
| | | | | | | | | **Hondarribia** |
| | | | | | | | | 17:30<br>**BINEFAR**<br>*Maricastaña* |
| | | | | | | | | **VIllabona** |
| | | | | | | | | 17:00<br>**MAAYAN LUNGMAN**<br>*"NIYAR - una historia de papel"* |
| LARUNBATA<br>24<br>SÁBADO | IGANDEA<br>25<br>DOMINGO | ASTELEHENA<br>26<br>LUNES | ASTEARTEA<br>27<br>MARTES | ASTEAZKENA<br>28<br>MIÉRCOLES | OSTEGUNA<br>29<br>JUEVES | OSTIRALA<br>30<br>VIERNES | LARUNBATA<br>1<br>SÁBADO | IGANDEA<br>2<br>DOMINGO |

Gorriz agertzen diren saioak bakarrik ikastetxeekin hitzartuak dira, gainontzekoak ikuslegoari irekiak dira.

Las sesiones indicadas en rojo son solo para escolares concertados, el resto son abiertas al público

# SARRERAK_ENTRADAS

## TOPIC / LEIDOR / KULTUR ETXEA_CASA DE CULTURA

| | € | Familia ugariak eta TOPIC-eko lagunak<br>Familias numerosas y amigos del TOPIC |
|---|---|---|
| Helduak_Adultos | 7€ | 5€ |
| Haurrak_Niños y niñas | 4€ | 3€ |

## BERDURA PLAZA_PLAZA VERDURA

| | € | Familia ugariak eta TOPIC-eko lagunak<br>Familias numerosas y amigos del TOPIC |
|---|---|---|
| Helduak_Adultos | 4€ | 3€ |
| Haurrak_Niños y niñas | 3€ | 2€ |

## ZERKAUSIA_TINGLADO

| | € | Familia ugariak eta TOPIC-eko lagunak<br>Familias numerosas y amigos del TOPIC |
|---|---|---|
| Helduak / haurrak_Adultos / infantil | 5€ | 4€ |

Jaialdiko ikuskizun guztietarako sarrerak www.topictolosa.com atarian daude salgai baita TOPIC-eko leihatilan ere.

Las entradas para todos los espectáculos del festival están a la venta en www.topictolosa.com y en el TOPIC

Udazkeneko Jaialdien Sareko kidea

Miembro de la Red de Festivales de Otoño